

Egoitza egokiaren behar gorria azaldu dio Baionako gau eskolak Herriko Etxeari

Kokorrika saria eskaini dio Jean Grenet auzapezari, izan duen jarrera salatze

Lutxi Fourcade / Baiona

EUSKALTEGI egoki baten beharra aldarrikatu dute berriro Baionako gau eskolako kideek, eta dei egin diote herriko auzapezari aterabidea atzeman dezan lehenbailehen. Izan ere, Ipar Euskal Herriko gau eskola kopurutsuena izan arren, Baionako taldeak ez du inolako diru laguntzarik jasotzen Udalaren aldetik, eta lokalaren arazoa gero eta korapilatsuago da. «Hirurehun bat ikasle dira aurtengo ikasturtean, eta gorakada handiari begiratu, 350 ikasle izatea espero dugu datorren ikasturtearen sartzera. Baionako elkarte jendetsuena izanen gara, eta baitezpadakoa da laguntza izatea», azpimarratu zuten Peio Hegi elkarteak ordezkariek.

Lehen gau eskolak sortu ziren Baionan duela hamabost bat urte, eta urtez urte sendotu egin dira. Gaur egun, 300 bat ikasle biltzen ditu taldeak, baina ikasgelen eskasiak oztupoak jartzen dizkio irakaskuntzari. Pisu bat alokatzeaz gain, hiri erdian lau gela izateko, ikasleak eta irakasleak barreiatzen dira hiriko zenbait gunetan: AEKren egoitzan, IUT fakultatean, Biltxokan edo Baionan Euskaraz Bizi Elkartearen lokalean. Oro har, bederatzik elkarteren laguntza eskatzen du gau eskolak euskarazko kurtsoak emateko. «Ikasleak gune desberdinetan biltzen baitira, zaila da dinamika berezia sortzea eta funtsezkoa litzateke teoriarik ikasitakoa praktikan jartzea».

Alta bada, Baionako Udalak ezezko biribila adierazi zien gau eskolak egindako eskaera guztiei, eta, inolako elkarriketarik gabe, Rousseau kolejoan dagoen lokal bat proposatu zuen gau eskolak aterbetezko. Adierazpen

Ipar Euskal Herriko gau eskola jendetsuena izan arren, Baionako ikasleek ez dute lokal egokirik euskaraz ikasteko. Herriko Etxearen jokamoldea salatu du taldeak, eta aterabidearen beharra aldarrikatu.



Jean Grenet auzapezari kokorrika saria eskainiz, haren jarrera salatu zuten atzo AEK-ko kideek.

MANU RUIZ

publikoak ustekabe handia piztu zuela aitortu zuten gau eskolako kideek, «lehenik, ez baitugu sekulan proposamenik zuzenean jaso; eta bigarrenik, hitzordua eskatzen baitugu urtarriletik, ezin ukanez». Zernahi gisaz, gau eskolaren euskaltegia hiri erdian kokatzea baitezpadakotzat jo zuten. «Euskaraz mintzatzeko eguneroko bizitzan, beharrezkoa da jendeen artean izatea, eta ez

dugu onartuko hiritik ateratzea». Kostaldeko hiri gehienek laguntza ematen diete tokiko gau eskolei, hala nola, Hendaian eta Donibane-Lohizunen 150.000 libera eskaintzen dituzte, eta Miarriritzen 60.000 libera. Baionan, berriz, Udalak ez du inolako laguntzarik ematen. «Sekulako kontraesana dago Grenet auzapezaren ele ederren eta errealtatearen artean, eta benetako el-

karrizketa nahi genuke hasi Udalarekin aterabidea aurkitzeko». Anartean, Kokorrika sari berezia eskaini diote Jean Grenet auzapezari, «Korrikarentzat egindako guztia txalotzeko», azpimarratu zuten umorearekin. Izan ere, auzapezak ez zuen begi onez ikusi euskararen aldeko ibilaldia eta ukatu zuen hiriko gelak prestatzea edo Korrika Txikiaren antolaketza. X

Genetikoki aldatutako produktuak etiketan jakinarazi beharko dira

■ EAjk begi onez ikusi du atzo Europako Batzordeak hartutako erabakia

Erredakzioa / Bilbo

GENETIKOKI aldatutako produktuak etiketan jakinarazi behar direla erabaki zuen atzo Europako Batzordeak, gaiari buruzko egungo Europako araudiak jasotzen duena betez. Josu Jon Imaz erodiputatu jeltzaleak «oso positibotzat eta kontsumitzaileen interesetarako onuragarritzat» jo zuen atzo batzordeak hartutako ebazpena.

Imazek gogoratu zuenez, «egungo araudiaren arabera etiketa bakarrik da beharrezkoa produktua pertsonen osasun edo ingurugiroarentzat arriskutsua dela sumatzen denean». Dena dela, erodiputatu jeltzalearen ustez, «kontzeptu hori neurtzen zaila da, batez ere materiari buruzko ezagutza eguneroko areagotzen denean edo genetikoki aldatutako organismo berriak lehenik daudenean batera jardutean arriskuak sortzen direnean, bakoitzak bere kabuz eragingo ez litzukeenak».

«Produktu berriak lortzeko aldaketa genetikokoak ez dira txarrak halaber, eta sarri lagungarriak izan daitezke, pertsonen bizi kalitatea hobetzeko aukerak eskainiz. Baina kontsumitzaileari erabiltzen duenari buruz ahalik eta informazio gehien ematea garrantzitsua da», gehitu zuen. X

Bilboko ekialdeko saihebidetako lanak gelditu ditu EAeko Auzitegiak

Erredakzioa / Bilbo

ERAIKUNTZA lanok ingurugiroan duten eragina aztertu arte Bilboko ekialdeko saihebidetako obrak gelditzeko agindu du Euskal Autonomi Elkarteko (EAE) Auzitegi Nagusiak. Sententziaren arabera, Bizkaiko Diputazioa Otxarkoaga eta Txurdinaga arteko ingurubidea eraikitzen hasi zen lanok ingurugiroan eragingo litzuketen kalteak aztertu baino lehen.

Era berean, ibilbide berriko autobide eta autobia proiektu orotan horrelako azterketa egin beharra dutela gogorazten die Bizkaiko Diputazioari eta Bilboko Udalarai Auzitegi Nagusiak sententzian.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiak Auzitegi Nagusiaren ebazpena erretziaratu zuen atzo. Lanei lehenbailehen berrekin ahal izateko esperantza agertu zuten atzo foru arduradunek, «azpiegitura hau ezinbestekoa baita Bilbo metropolitanoarentzat eta Txurdinaga eta Otxarkoaga auzotako trafikoa hobetzeko». X

C meningitis azkar batek ikasle bizkaitar bat hil du

■ Kasuen kopurua nabarmen jaitsi da azken egunotan, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren arabera

Gorane Agirre / Bilbo

AKETZA RUIZ Sopelako (Bizkaia) 16 urteko gaztea C meningitis oso azkar batek jota hil zen joan den astean. Gaixotasun horren ondorioz, Euskal Autonomi Elkartean (EAE) aurtan hil den lehenengo pertsona da; iaz lauzpabost lagun hil ziren meningitis mota honek jota.

Ander Deuna ikastolako ikaslea zen Aketza Ruiz, eta iragan martxoaren 24an, astelehena, diagnostikatu zioten gaixotasuna. Hurrengo egunen gaixotasuna sartu eta bi egunera, ostegunean, hil zen. Luis Gonzalez de Galdeano Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko zuzendariak atzo azaldu zuenez, «meningitis mota hauek kasu batzuetan oso azkar eragiten dute». Dena dela, C meningitis kasuen kopurua EAEn

azken egunotan jaitsi egin dela nabarmendu zuen.

Sopelako gaztearen heriotza dela eta, Osasun Sailak 66 laguni jarri die gaitzaren kontrako txertoa. Hain zuzen ere, aurreko asteetan Aketza Ruizekin batera ikasketa bidaiari izan ziren ikasleak eta berarekin harremanetan izan diren lagun eta senitartekoei.

Azken egunotan izandako kasuen jaitsiera nabarmena azpimarratu zuen atzo Gonzalez de Galdeanok. Hark emandako datuen arabera, EAEn aurtengo hiru hilabeteotan C meningitisaren 30 kasu izan dira: zortzi urtarrilean, hamalau otsailean, sei martxoaren lehen hamabostaldian eta bi azken hamabost egunotan.

Ildo horretan, C meningitis urtaro batzuetan agertzen den

gaixotasuna dela azaldu zuen Osasun Publikoko arduradunak. Izan ere, datuek erakusten dutenez, neguarekin batera agertu eta udaberria igaro ahala kasuak murriztuz doaz.

Lurraldeka, Araba da kasu gehien izan duen probintzia, guztira 14. Bizkaian, oster, 11 gaixo izan dira lehen hiru hilabete hauetan, eta Gipuzkoan bost kasu baino ez. Ildo horretan, Osasun Publikoko zuzendariak gaixotasunak erakusten duen banaketa geografiko bitxia aipatu zuen, ikuspegi medikoa izan gaitza dena. Hau da, «mendebaldean ekialdean baino kasu gehiago kontabilizatzen dira. Espainian ere, esaterako, kasu gehiago daude mendebaldean ekialdean baino. Hala, Galizian ageri da kasu gehien».

C meningitisaren kontrako

txertaketa kanpaina hasteko Gasteizko Osasun Sailak bi irizpide erabiltzen ditu. Batetik, ehun mila biztanleko hamar kasu diagnostikatu izana; eta bestetik, herri txiki bat bada hiru kasu egon izana. Dagoeneko, Osakidetza kanpaina bana egin du Galdakaon eta Aiara bailaran, guztira 18.000 txertotik 19.000ra jarri du.

Gaixotasun honen sintomak ez direla oso zehatzak jakinarazi zuen Osasun Publikoko buruak. Hala ere, zenbait aipatu zituen, besteak, zenbait garro, goitikak, garondo zurruntasuna eta, gerora, orban gorriak azalean.

Duela bi astetik C meningitisaren txertoa eskuragarri dago EAeko farmazietan. Hala ere, Osakidetza ez du erabilera masiboa gomendatzen. X